

AMONAREN KONTAKIZUNAK

Doinua: Zeru altuan dagoen jauna

- 1) Sutondon jartzen ginen guztiok egun euritsu, hotzetan anai-arrebak, aita, ama ta amona ginen ba bertan. Gure amona aulki batean jartzen zan a(ha)leginetan ordun hasten zan kontu-kontari bere kontakizunetan
- 2) Belarrik erne, isiltasunez egon ohi ginen gu denak, istorioak beti baitziren politak amaiezinak. Ta haurtzaroko bizimodua islatzen zuten gehienak, niretzat ziren zinez ederrak goxo, xarmant atseginak.
- 3) Hauxe kontatzen zigun amonak bere istorioetan: Oilarrak bere kukurruekin esnatzen nindun goizetan, katiuskak jantzi ta ikuilura zimaurre ugari bertan behiei azpiak ateratzeko beti izerdi patsetan.
- 4) Behi guztiek jana eman ta balde batekin jeztera, aspergarria itten zitzaidan ta neketsua gainera. Kaiku batekin joaten nintzen ni esne sobrak saltzera, nire auzoko etxeakoandreei dirua ateratzera.
- 5) Nire aita zanak esan ohi zidan begira zeru gorria, hola jakingo duzu zuk beti datorren eguraldia. Esaera bat erabiltzen zun adieraziz egia: "goiz gorritan, arrats euria ta gau gorri, goiz argia".
- 6) Geure amonak kontatutako istorio batzuk dira, pasarte motza edo luzea adi berari begira. Ta hauen bidez murgil gaitetzke aiton-amonen garaira, garai zaharrak, kontu zaharrak beregan dute disdira

Egilea: Arru